

# P E R P A U S A

Perpauza bost sintagmaz osatua da: sintagma jokagarri batez eta lau sintagma deklinagarritz.

Sintagma jokagarria: - **ADITZA**

Sintagma deklinagarriak: - **NOR**  
- **NORK**  
- **NORI**  
- **OSAGARRIAK**

Horrela, deklinabidearen eta jokabidearen batasunean eta komunztaduran datza perpauzaren joskera.

Adibidez har dezagun abesti ospetsu hau (moldatuta):

**nire aitak** **amari** **gona gorria** **ekarri dio** **gaur arratsaldean**

A adibidea

Alde batetik, perpausean sintagma jokagarri bat dago: aditza.

## ADITZ SINTAGMA

Aurkeztu nahi dugun ekintza, egoera edo gertaera adierazten du aditzak. Dakusagun A adibideko perpauza.

**nire aitak** **amari** **gona gorria** **EKARRI DIO** **gaur arratsaldean**

Perpauzeko aditzak EKARRI ekintza adierazten digu; aditza hauxe da: EKARRI DIO.

Perpauz guztiek aditz bakar bat, aditz ageri edo agerigabe bat edukitzen dute beti. Aditza nahitaezkoa da perpauzean.

Beste lau sintagmak, sintagma deklinagarriak, hauek dira: Nor, Nori, Nork eta Osagarriak.

|                     |
|---------------------|
| <b>NOR SINTAGMA</b> |
|---------------------|

Nor aditzeko objektua da, aditzak emandako ekintza jasaten du. Nor partizipioaren bitartez aurkitzen dugu.

**ZU etorri zara**

Adibidez, ETORRI ekintza ematen badugu, izaki bat mugitzen da handik hona, norbaitek edo zerbaitek jasaten du mugimendu hori, aditzaren ekintza hori; hauxe da nor. Perpauseko nor aurkitzeko, partizipioak erakusten digu: gauza etorria, **ZU**. Aditzak berak egiaztatzen digu: **zara**.

**ZU ekarri zaitut nik**

Ekintza honetan ere izaki bat mugitzen da handik hona, norbaitek edo zerbaitek jasaten du mugimendu hori, aditzaren ekintza hori; hauxe da nor. Nor aurkitzeko, partizipioak ere erakusten digu: gauza ekarria, **ZU**. Aditzak ere egiaztatzen digu: **zaitu**.

Azken bi adibideotan gauza etorria eta gauza ekarria izaki bera da, izaki berak jasaten ditu bi adibideetako ekintzak, handik honako bi mugimenduak. Batean berez, eta bestean norbaitek eraginda, baina bietan mugimenduaren objektuak dira. Hauxe da euskararen nor sintagma.

Ikus dezagun 15. orrialdeko A adibidean.

**nire aitak** **amari** **GONA GORRIA** **ekarri dio** **gaur arratsaldean**

GONA GORRIA nor da, EKARRI aditzaren objektua, jostunarenetik etxera etorri dena, EKARRI aditzaren esanahia jasaten duena, leku batetik beste baterako mugimendua jasaten duen izakia. Partizipioaren bitartez aurkitzen dugu nor: gauza ekarria, GONA GORRIA. Perpaus guztiek nor bakar bat edukitzen dute.

Adibide gehiago jar dezakegu.

|                                  |  |
|----------------------------------|--|
| <b>goizean AITA etorri da</b>    | AITA <u>gauza etorria</u> da, objektua, handik hona mugitu dena  |
| <b>jan itzazu PATATA GUZTIAK</b> | PATATA GUZTIAK <u>gauza janak</u> (jan izatekoak) dira, objektua, plateretik<br>ahora igarotzekoak                 |
| <b>EURO BAT emango bazenit</b>   | EURO BAT <u>gauza emana</u> da (emana izango litzatekeena), objektua, esku<br>batetik bestera igaroko litzatekeena |
| <b>EMAKUME HORI erori da</b>     | EMAKUME HORI <u>gauza eroria</u> da, objektua, zutik egotetik lurrera jo<br>duena                                  |
| <b>EGIA DELA esan dit aitak</b>  | EGIA DELA <u>gauza esana</u> da, objektua, aitaren ahotik nire belarrietara<br>etorri dena                         |

Perpaus guztiek aditza edukitzen dute, baita nor ere, beti. Perpaus guztiek beti ekintza adierazten duen aditza baitute, ekintza hori jasaten duen nor ere izan behar dute, nor ageri edo agerigabe bat. Aditza eta nor nahitaezkoak dira.

Beste hiru sintagma deklinagarriak (nori, nork eta osagarriak) ez dira derrigorrezkoak; perpaus batek haietako zenbait izan dezake, denak izan ditzake, edo bat ere ez izan.

Derrigorrezkoak ez diren sintagma deklinagarriak hauexek dira.

## NORK SINTAGMA

Norrek nor sintagmari ekintza jasanarazten dio, ekintza objektuaren gainean eragiten du. 15. orrialdeko A adibidea berriro dakusagun.

**NIRE AITAK** amari **gona gorria** **ekarri dio** **gaur arratsaldean**

Nor, gauza ekarria, gona gorria, EKARRI aditzaren objektua, ez dator berez. Norbaitek igaroarazi du jostunaren etxetik gure etxera. Norbait hori, eragile hori, nork da, NIRE AITAK sintagma. Norkik badago, perpausak nork bakar bat edukitzen du.

Beste adibide batzuk azter ditzakegu.

|                                       |  |
|---------------------------------------|--|
| <b>erosi dugun ogia jan duzu ZUK</b>  | ZUK eragin diozu ogiari jateko ekintza. Ogia ez da berez jan, mahaitik ahora ZUK eraman duzun baizik |
| <b>HAIZEAK teila batzuk bota ditu</b> | Teilak ez dira berez erori, HAIZEAK bultzatu ditu, botatzeko ekintza HAIZEAK eragin die teilei       |
| <b>ASKO ERRETZEAK kalte egin dizu</b> | Kaltea ez zaizu berez egin, ASKO ERRETZEAK eragin dizu kaltea egiteko ekintza                        |

## NORI SINTAGMA

Nori, ekintzan eskurik hartu gabe, hartzailea da; norek jasaten duen ekintza hartzen duena. Ez du ekintzan parterik hartzen, baina emaitza hartu bai. Dakusagun 15. orrialdeko A adibidea.

**nire aitak** **AMARI** **gona gorria** **ekarri dio** **gaur arratsaldean**

Amak ez du ezer ekarri, eta bera ez da gauza ekarria, baina gona gorria berak hartu du, AMARI perpausako nori da. Noririk badago, perpausak nori bakar bat edukitzen du.

Beste adibide batzuk ere ikus ditzakegu.

|                                    |   |
|------------------------------------|---|
| <b>udaberria etorri zaigu GURI</b> | GU ez gara gauza etorria, eta ez dugu ezer ekarri, baina udaberriko berotxo hartu dugu                                      |
| <b>ADISKIDEOI egia esan dizuet</b> | ADISKIDEOK ez zarete gauza esana, eta ez duzue tutik esan, baina nire esana hartu duzue, entzun duzue, eta gainera egia da. |
| <b>EGIA ESATEARI ona deritzat</b>  | EGIA ESATEA ez da ekintzaren objektua, eta EGIA ESATEAK ez du ezer uste, baina onespina hartzen du                          |

|                          |
|--------------------------|
| <b>OSAGARRI SINTAGMA</b> |
|--------------------------|

Osagarria ekintza gertatzen deneko inguruak adierazten dituen sintagma deklinagarria da. Osagarri ugari dago, mota askotako inguruak adierazteko.

Ikus dezagun osagarria 15. orrialdeko A adibidean.

**nire aitak amari gona gorria ekarri dio GAUR ARRATSALDEAN**

GAUR ARRATSALDEAN sintagmak ekintzako denbora-ingurua adierazten du, ekintza denboran kokatzen du, non-osagarria edo inesiboa da.

Ikus ditzagun beste osagarri batzuk.

|   |   |
|---|---|
| <b>NIRE LEIHOTIK Gorbeia ikusten da</b>       | Mendia ikusteko ekintza nondik egiten den adierazten du, nondik-osagarri edo ablatiboa da   |
| <b>ASPERTUTA ZEGOELAKO piztu du telebista</b> | Telebista pizteko ekintzaren zergatia adierazten du, norengatik-osagarri edo motibatiboa da |
| <b>ZUEN LAGUNEKIN joango gara</b>             | Joateko ekintzaren lagunak aurkezten ditu, norekin-osagarri edo sozietiboa da               |
| <b>nik GAUEZ egiten dut lana</b>              | Lan egiteko ekintzaren denbora-modua adierazten du, nola-osagarri edo modala da             |

Osagarririk badago, perpausean osagarri bat edo batzuk egon daitezke.

|  |                     |
|--|---------------------|
| <b><u>BIHAR</u> eramango zaitut</b>                            | Osagarri bat dago   |
| <b><u>BIHAR</u> <u>ETXERA</u> eramango zaitut <u>AUTOZ</u></b> | Hiru osagarri daude |